

Euskadiko udal politikaren Jokabide, Gobernu On

eta Herri-erakundeen Kalitateari buruzko Kodea

UDAL TALDE PILOTU BATEK JOKABIDE ETA GOBERNU ONEKO PRAKTIKA ONAK ALDERATU DITU EUROPAKO KONTSEILUAREN ORDEZKARIEN AURREAN

- Atzo eta gaur, EUDELek laneko mintegia egin du 15 udaletako Alkateak, zinegotziak eta teknikari arduradunak batzartuta, Euskadiko udal hautetsien Jokabide Kodea ebaluatzeko adierazle-fitxa testatzeko asmoz.
- Europako Kontseiluak EUDELekin batera lan egin du proiektu honetan eta bere ordezkariak bidali ditu lehenengo talde pilotu honetako udalek jarduera honetan izandako aurrerapenen jarraipena egiteko.

Bilbon, 2013ko abenduaren 11n. *Euskadiko udal politikaren Jokabide, Gobernu On eta Herri-erakundeen Kalitateari buruzko Kodea* izeneko proiektu pilotua osatzen duten 15 udalak atzo eta gaur ere batzartuta egon dira lan-saio bitan, hautetsien jokabide etikoa ebaluatzeko aukera emango duten neurketarako adierazleen fitxaren azken ukituak emateko asmoz. Hori guzti hori udal bakoitzeko Etika politikoaren eta Gobernu Onaren etengabeko hobekuntzako plan espezifikoak diseinatzeko xedez egin da.

Euskadiko Udalen Elkarteak antolatu du egun pare batez luzatu den mintegi trinko hau eta, bertan, udalen talde pilotuko **hogeita hamar** arduradun politikok eta teknikarik parte hartu dute. EUDELeko Batzorde Eragilearen izenean, **Ibone Bengoetxea lehendakaria** eta Irungo Alkatea den **Jose Antonio Santano Lehendakariordea** egon dira, hiru lurralde historikoetako hainbat udaletako 10 alkaterekin batera.

Europako Kontseiluak, Europako Udal eta Erregioetako Administrazioen Biltzarraren bitartez, euskal proiektuaren gauzapenerako Europako ikuskari gisa bi ordezkari bidali ditu Bilbora.

Jokabide Kodea eta bere ebaluazioa euskal udaletan

"Euskadiko udal politikaren Jokabide, Gobernu On eta Herri-erakundeen Kalitateari buruzko Kodea" EUDELeke Batzar Nagusian aurkeztu zen modu ofizialean, aurtengo maiatzean. Batzorde Eragileko 15 Alkateek konpromisoa hartu zuten hura ezartzen lehenengoak izateko, fase pilotuaren barruan. Hala, 2013ko azken hiruhilekoan udal erakundeei proiektuaren berri eman diete batzorde, gobernu-batzorde edo osoko bilkuren bidez, bakoitzean dagokionaren arabera.

Euskal hautetsien Jokabide Kodearekin batera ebaluaziorako adierazleak biltzen dituen fitxa bat dago. Azken honen bidez, besteak beste, **hurrengo arloetan etikaren arabera burututako neurtzeko aukera egongo da:**

- Jokabidearen barneko zein kanpoko kontrolak eta hautetsien gaitasuna
- Gardentasuna, komunikazioa eta prozedura administratiboak
- Udalak sektore pribatuarekin dituen harremanak (esate baterako, ondasun eta zerbitzuez hornitzeko kontratu publikoak)

Tresna hau **puntuatzeko plantilla** bat da. Bertan jasotzen dira atalen arabera antolatutako adierazle kuantitatiboak. Adierazleak hautetsien jokabide etikoari zein udal erakunde osoaren Gobernu Onari buruzkoak dira. **Horrek guzti horrek hiru helburu handi ditu:** erreferente nazional propioaren kalkulua (Euskadiko udal guztien batez bestekoa); udal bakoitzaren praktika onak identifikatzea (erreferente horrekin alderatuta); eta udalen arteko lankidetzaren bakoitzaren hobekuntzarako planak diseinatzeko asmoz.

Proiektu pilotuan parte hartzen duten udalak:

BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
Udalak	Biztanle-kopurua	Udalak	Biztanle-kopurua	Udalak	Biztanle-kopurua
Basauri	42.166	Elgoibar	11.360	Amurrio	10.014
Bilbo	352.700	Hondarribia	16.499	Arraia-Maeztu	722
Durango	28.266	Irun	61.006	Guardia	1.546
Ermua	16.274			Iruña-Oka	2.966
Galdakao	29.049			Vitoria-Gasteiz	239.562
Portugalete	47.742				
Santurtzi	47.076				